

2- BEZEROEN SEGMENTUA

Aurretik esan den moduan, zainketak behar dituzten pertsonen egokituta dagoen app-a da. Hau da, gure bezeroak oinarririk dira desgaitasunen familia/lagunak, zahar aroko pertsonen eta umeen familiakideak...

Hasieran bezeroen merkatua ikertzerakoan, konturatu egin ginen, pertsona talde hauek nahiko baztertuta zeudela, hau da, ez zegoela behar beste zerbitzu pertsona hauei laguntzeko. Izan ere; ikerketak behatzen, antzeman izan genuen, estatuak ematen dituen diru laguntzak, pertsonala... ez direla nahikoak pentsatzen zuen.



Baita ere lehen aztertu den moduan, antzeman izan dugu gurasoen gehienak denbora gutxi zutela bere umeekin egoteko eta hauetatik portzentai altu batek laguntza behar zuela haien umei eskolara eramateko, denbora pasa ahal izateko, eskolatik eskolaz kanpoko jarduetara eramateko...



Hortaz aparte konturatu ginen populazioaren zati handi bat elbarriak zirela 4.3 milioi Espainian zehazki. Kolektibo honi buruzko informazioa bilatzen, antzeman izan genuen hauetako gehienak laguntzak behar zutela eguneroko jarduerara ohikoak egiteko, hala nola: dutxatzea, janaria prestatzea, autobusera igotzea...



Hau guztia jakinda, konturatu ginen “bezero modelo/mota” sortzen ari ginela: zainketetarako laguntza behar duten pertsonak. Atal honetan sartu ahal izango genituzke ume txikiak dituzten familiak, elbarrituenentzat edo haien ardurapean dauden pertsonentzat, adineko pertsonentzat edo haien familientzat...

Laburbilduz, guk zainketak behar dituzten pertsonetan oinarritzen gara, bai denbora luzeko (egun batez edo gehiagoz) bai denbora motzeko (ordu batzuz) zainketetan.